

● ● Eklipse




Foto – Argazki. AGN. Fot_Altadill_C_100

01/1.000

28 – 30 apirila 20:20etan – Nafarroa –

Eklipse bat. Mila begirada
Argazki lehiaketa. Oinarriak

01 Xedea eta helburua

2026ko abuztuaren 12ko eguzki eklipsea dela eta, Iruñeko Planetarioa - NICDOk argazki lehiaketa bat antolatuko du apirilaren 29aren inguruan, egun horretan Eguzkiaren ibilbidea 2026ko abuztuaren 12ko ibilbidearen antzekoa izango baita eta eguzki eklipse osoa gertatuko baita. Ekintza hau EKLIPSE proiektuaren dibulgazio jardueren programaren barruan dago. Iruñeko Planetarioak - NICDOk eklipsean eta argazkigintzan interesa duten pertsonak animatu nahi ditu jarduera honekin, 2026ko abuztuaren 12ko esperientzia prestatzeko.

02 Erakunde antolatzailea

Erakunde antolatzailea NICDO da (aurrerantzean, Iruñako Planetarioa-NICDO).

03 Parte – Hartzaileak

14 urtetik gorako edozein pertsona fisikok har dezake parte lehiaketan. 18 urtetik beherakoen kasuan, nahitaezkoa izango da amak/aitak/legezko tutoreak sinatutako baimena betetzea, I.

eranskinetako ereduaren arabera zehaztu beharrekoa. Lehiaketan parte hartzea doakoa da.

04 Gaia, argazki – aldia eta obraren baldintzak

Lehiaketa honen gaia Eguzkia eta bere posizioa dira, apirilaren 29an bere ibilbidea 2026ko abuztuaren 12ko eklipse osoaren egunaren antzekoa izango baita.

Parte-hartzaile bakoitzak libreki interpretatu eta irudikatu ahal izango du. Parte-hartzaile bakoitzeko argazki bakarra onartzen da.

Argazkiak 2026ko apirilaren 28tik 30era bitartean egin beharko dira, biak barne, 20:20tik aurrera eta Nafarroako foru komunitatearen barruan.

Lanak originalak izango dira, parte-hartzaileak berak eginak, eta II. eranskinetako ereduaren arabera aitortu beharko dira.

Baimendutako edizioa

Oinarrizko edizio-doikuntzak onartzen dira (esposizioa, zurien balantzea, kontrastea, ebaketa, zarata murrizketa eta fokuratzea).

Ez da onartzen aldaketa esanguratsurik, eszenako elementu garrantzitsuak gehitzea, ezabatzea edo ordezkatzeta.

Ez da onartuko inteligentzia artifizialarekin (IA) partzialki edo osorik egindako argazkirik. Argazkian ez da ur-markarik, sinadurarik edo testu gaininprimaturik agertuko.

05 Aurkezpena, epea eta bidaltze kanala

Aurkezteko epea

2026ko maiatzaren 1etik 6ra (biak barne).

Obren aurkezpena Iruñeko Planetarioa-NICDOk prestatutako formularioaren bidez bakarrik egingo da (URL a insertar).

Lehiaketarekin zerikusia duten kontsultak epea itxi baino 48 ordu lehenago egin ahal izango dira, ondorengo posta elektronikoaren bidez. info@pamplonetario.org.

Interes orokorreko erantzunak modu anonimoan argitaratu ahal izango dira, informazio garrantzitsu guztia parte-hartzaile guztientzat modu ekitatiboan eskuragarri egongo dela bermatzeko.

06 Fitxategiaren betekizun teknikoak

- Formatua: JPG edo PNG, eta metadatuak edo Exif datuak izan beharko dituzte.
- Alde nagusian 3.000 pixeleko gutxieneko tamaina eta 300 ppp-ko bereizmena.

- Fitxategiaren gehienezko tamaina: 8 MB.

07 Onartzea, zuzentzea eta baztertzea

Iruñeko Planetarioa-NICDOk baldintza formalak betetzen diren berrikusiko du, III. eranskinean adierazitakoa barne. Epe laburrean akats formalak zuzentzea eskatu ahal izango da (adibidez, osatu gabeko datuak), argazkia ordeztzeko aukerarik eman gabe.

Baztertze arakoak:

- Epez kanpo edo aurreikusita ez dagoen beste bide batetik aurkeztea.
- Pertsona bakoitzeko argazki bat baino gehiago bidaltzea.
- Argazki ateratze-aldia edo gaia ez betetzea.

- Gutxieneko formatua, tamaina edo bereizmena betetzen ez duen fitxategia.
- Sinadura, ur-marka edo identifikazio-testua duten argazkiak.
- Erantzukizunpeko adierazpen edo baimen galdagarri eza (adib.: adingabeak, irudi-eskubideak).
- Manipulazio digital esanguratsua, 4. atalean zehaztutakoaren aurkakoa.

08 Epaimahaia

Iruñeko Planetarioa - NICDOk izendatutako hiru pertsonak osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaikideek objektibotasun, independentzia eta inpartzialtasun osoz jokatuko dute aurkeztutako lanen balorazioan.

Oinarri hauetan berariaz aurreikusi gabeko gorabehera edo intzidentziaren bat planteatzen

bada, epaimahaiari dagokio hura interpretatzea eta ebaztea, modu arrazoituan eta oinarri hauetan ezarritakoari eta tratu-berdintasunaren, gardentasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioei jarraiki, erabaki horiek lehiaketaren oinarriak eta parte hartzeko baldintzak aldatu gabe.

09 Epaitza eta emaitzen argitalpena

Epaia maiatzeko "Los 12 antes del eclipse" (eklipse aurreko 12ak) jardueran iragarriko da, eta, nolahi ere, lehiaketaren webgunean eta/edo kanal ofizialetan argitaratuko da, gutxienez, saritutako lanak

identifikatuz eta, egoki iritziz gero, finalista aukeratuz.

Epaia behin betikoa da lehiaketaren esparruan.

10 Sariak

Hautatutako lanen artean, epaimahaiak honako sari hauek emango ditu:

Lehenengo saria

- 300 euroko NICDO opari-txartela.
- Larra Belaguako pistara sartzeko 2 gonbidapen
- 2026ko abuztuaren 12rako Sendaviva parkerako 4 sarrerako packa.

Bigarren

- 200 euroko NICDO opari-txartela.
- Larra Belaguako pistara sartzeko 2 gonbidapen
- 2026ko abuztuaren 12rako Sendaviva parkerako 4 sarrerako packa.

Gazte Saria (20 urtetik beherakoek egingako argazkirik onena):

- 100 euroko NICDO opari-txartela.
- Larra Belaguako pistara sartzeko 2 gonbidapen
- 2026ko abuztuaren 12rako Sendaviva parkerako 4 sarrerako packa.

NICDO opari-txartela erabiltzeko baldintzak esteka honetan kontsulta daitezke.

Iruñeko Planetarioa - NICDO sarituekin harremanetan jarriko da emandako datuak jarraituz. 7 egun naturaleran kontakturik edo onarpenik lortzen ez bada, puntuaziorik onena lortu duen hurrengo lanari esleitu ahal izango zaio saria.

11 Hautaketa, erakustketa eta hedapena

Iruñeko Planetarioa-NICDOk erakusketa bat egingo du Sendaviva parkean, behaketa-gune ofizialean, 2026ko abuztuaren 12ko eklipsea dela eta.

Epaimahaiak aukeratutako argazkiak jendaurrean erakutsiko dira www.eklipsenavarra.com webgune eta sare sozialen bidez, baita Iruñeko Planetarioa-NICDOk egokitzat jotzen duen beste edozein plataforma edo erakusketa-baliabideren bidez

ere, betiere sortzaileen egiletza mantenduz eta aitortuz.

Gainera, apirilaren 12an, Azkoienen eta "Los 12 antes del Eclipse" (Eklipsearen aurreko 12ak) elkarrizketa-zikloaren barruan, argazki-tailer bat egingo da lehiaketarako eta eklipserako prestatzeko.

12 Jabetza intelektual eta erabilera lizentzia

Lanen jabetza intelektual egileei dagokie.

Parte hartzeak Iruñeko Planetarioa – NICDOri lizentzia ez eskusiboa, doakoa eta irabazi-asmorik gabekoa ematea dakar, obrak erreproduzitzeko, jendaurrean komunikatzeko eta eskuragarri jartzeko, soilik lehiaketa eta eklipsea kultura, hezkuntza eta sustapen

zabalkunderako, epaia ematen denetik 5 urtez, edozein lurraldetan. Iruñeko Planetarioa - NICDOk autoretza aipatuko du teknikoki posible denean.

Beste edozein erabilerak (adibidez, helburu komertzialak edo proiektutik kanpoko hirugarrenei lagatzea) egilearen berariazko baimena beharko du.

13 Irudi eskubideak, pribatutasuna eta edukien gaineko erantzukizuna

Parte-hartzaileak bermatzen du obra aurkezteko beharrezkoak diren eskubideak eta baimenak dituela (pertsona identifikagarrien irudi-eskubideak eta hirugarrenen baimenak barne, eska badaitezke).

Ez da onartuko oinarritzko eskubideak (ohorea, intimitatea,

norberaren irudia), hirugarrenen jabetza intelektual edo aplikatu beharreko araudia urratzen duen obrarik.

Parte-hartzaileak Iruñeko Planetarioa - NICDO kanpo mantenduko du, hirugarrenek aurrekoa ez betetzeagatik egindako erreklamazioen aurrean.

14 Datuen babes

Iruñeko Planetarioa - NICDOk datu pertsonalak parte-hartzea kudeatzeko, parte-hartzaileekin komunikatzeko, lehiaketa ebazteko eta, hala badagokio, emaitzak argitaratzeko eta aukeratutako lanak oinarri hauen arabera zabaltzeko tratatuko ditu.

Inprimakian datuak babesteko araudiak eskatzen duen informazio osoa sartuko da.

15 Oinarriak onartzea, aldaketak eta etetea

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar.

Oinarrietan egiten den edozein aldaketa garrantzitsu deialdiaren bide berberak erabiliz argitaratuko da, eta epeei eragiten badie, modu proportzionalen luzatuko dira.

A. I. Eranskina Adingabeek parte hartzeko baimena

_____ Jauna/andrea, _____ NAN/AIZ-rekin,
_____ -ren ama/aita/legezko tutorea den aldetik,
"Eklipse bat, mila begirada" lehiaketan parte hartzeko baimena ematen
du, baita NICDOrekiko komunikazioa ere, lehiaketa kudeatzeko eta sariak
emateko, oinarrien arabera.

Sinadura: _____ Data: 2026/____ / ____

A. II. Eranskina Erantzukizunpeko Adierazpena

_____Jauna/andrea, _____NAN/AIZ-rekin,
Nire erantzukizunpean aitortzen dut aurkeztutako argazkia originala dela,
nik egin dudala, oinarrietan adierazitako epearen barruan, eta aurkezteko
behar diren eskubideen titularra naizela. Konpromisoa hartzen dut jatorrizko
fitxategia eta/edo metadatuak aurkezteko, NICDOk hala eskatzen badu.

Sinadura: _____ Data: 2026/____ / ____

A. III. Eranskina Baimenak

_____ Jauna/andrea, _____ NAN/AIZ-rekin,
Argazkian pertsona identifikagarriak agertzen badira, aitortzen dut baimena
dudala hauek bildu eta zabaltzeko, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan.
Adingabe identifikagarrien kasuan, haien legezko ordezkarien baimena dudala
adierazten dut.

Sinadura: _____ Data: 2026/____ / ____